



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ERAKUNDE-AITORPENA

ALTZA ERABERRITZEKO PLAN INTEGRALA

1950eko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, eta 1960ko hamarkadan, batik bat, Altza auzoak aldaketa sakona jasan zuen. Nekazaritza ingurunekeo herrigunea zen hasieran, eta garapen bortitz eta kaotikoko auzo bilakatu zen. Espekulazio interesak gailendu ziren, Pasaiako portuaren inguruko industrigune berrietatik hurbil etxebizitzak eraikitzekeo aukera aprobetxatzearren, industriek eskulana eskatzen zuten eta.

Altzan auzuneak eraiki ziren, eta industriak ordenarik gabe ezarri ziren. Ondorioz, hornikuntzen, sarbideen eta abarren defizita zuen hiri inguruko auzoa sortu zen. Hara aldatu zen bizitzera inguruko industrietan eskulana jarri zuten langileen zati handi bat.

Altza, hortaz, Donostiaren beste aurpegia bilakatu zen. Kontxa inguruko kalitate handia duen Donostiaren aldean, Altza hiri inguruko auzo degradatuaren adibide argia da.

1980ko hamarkadan, nahiz eta Altzan behar ziren ekipamendu zenbait jarri diren, egin diren jarduketak ez dira oraindik nahikoak, eta era partzialean eta helburu zehatzetarako egin dira. Ez dago jarduera esparru orokorrik jarduketa horiek antolatzekeo eta bideratzekeo.

Altzan sarbide txarrak daude. Uharte baten eran dago, komunikabide handiek inguratuta (A-8, N-1, trenbidea, FEVE), baina ez ditu sarbide onak, nahikoak eta egokiak komunikabide horietarako. Gainera, Altza barruko mugikortasun sistema txarra da: arkitektura traba handiak ditu; aparkalekuak falta dira...

Altzan, elkartzeko eta jolasteko toki ireki gutxi dago.





Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Altzan, beharrezkoa da ekipamendu berriak ezartzea, eta badaudenetako batzuk eraberritzea edo handitzea.

Altzan, ondare eraikia —publikoa zein pribatua— eraberritzeko plan jarraitua behar da. Ondare pribatuari dagokionez, ondare pribatu komuna eraberritu behar da bereziki. Horri dagokionez, nabarmendu behar da IZARTU programaren bidez ematen diren eraberritzeko laguntzak 2005ean bukatuko direla.

Altzan, etxebizitza eraikinekin batera eta haien ondoan dauden industriak lekuz aldatu behar dira.

Labur esanda, Altzan beharrezkoa da Eraberritzeko Plan Integrala. Plan horrek ikuspegi orokor batetik ekin behar die Altzako arazoei, eta jarduketa programa osoa proposatu behar du, jarduketa horiei dagozkien aurrekontu betebeharrekin batera. Planak auzoa eraberritzeko ahalmena duten jarduketak integratu behar ditu —hala nola Lardi-alden, Auditiz-Akularren, Herreran edo Jolastokietan egin beharrekoak—, baina horietatik edo helburu zehatzeko beste jarduketa batzuetatik harantz joan behar du.

Altzan, udalak denboran zehar era jarraituan jardun dezan behar da, eta behar adinako baliabideekin, auzoko kalitate estandarrak hiriko beste auzo batzuetan daudenen antzekoak izan daitezen.

Bestalde, gaitasun teknikoa duen diziplina anitzeko talde batek taxutu behar du horrelako eraberritze plan bat, eta auzokideek ere parte hartu behar dute horretan, bide egokien bitartez.




Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Iritzi horietan oinarriturik, EAJ zinegotzi taldeak honako hau onartzea proposatzen du:

ERABAKIA:

Donostiako Udalbatzak erabaki du Gobernu Batzarrari eskatzea Altza auzoa Eraberritzeko Plan Integrala egin dezala, bai eta dagokion hainbat urtetarako finantzaketa plana ere. Plan integral horretan, auzoan diren arazoei (ibilerraztasuna, ondare eraikia eraberritzea, toki publikoak, ekipamenduak...) oro har ekin behar die, auzoan eta inguru hurbilenean abian jarri diren hirigintza ekimenak gorabehera. Halaber, auzokideek parte hartzeko prozesua bideratu behar du.

Donostian, 2005eko martxoaren 2a.


Roman Sudupe Olaizola
Bozeramailea



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

PLAN INTEGRAL DE REGENERACIÓN DE ALTZA

A partir de la mitad de la década de los 50 y, particularmente, durante los años 60 el barrio de Altza sufrió una transformación radical. Altza pasó de ser un pequeño núcleo rural a convertirse en un barrio con un desarrollo intensivo y caótico, donde primaron los intereses especulativos asociados a la oportunidad de desarrollar viviendas próximas a los nuevos asentamientos industriales que se estaban desarrollando en el entorno del puerto de Pasaia y que estaban demandando mano de obra.

En Altza se construyeron barriadas y se implantaron industrias de manera desordenada dando origen a un barrio periférico con fuertes déficits dotacionales, de accesos, etc... en el que establecieron su residencia buena parte de los trabajadores que aportaron mano de obra a las industrias del entorno.

Altza se convirtió así en la otra cara de Donostia. Frente a la Donostia de alta calidad del entorno de la Concha, Altza constituye el mejor ejemplo de una periferia degradada.

Si bien a partir de los años 80 en Altza se han puesto en marcha diversos equipamientos necesarios, las actuaciones que se han llevado a cabo son todavía insuficientes y se han desarrollado de forma parcial y puntual, sin un marco general de actuación que les de sentido y las oriente.

Altza presenta malos accesos, se encuentra como una isla, rodeada de importantes vías de comunicación como la A-8, la N-1, el ferrocarril y FEVE, pero no tiene buenos accesos, suficientes y apropiados, a estas vías. Además Altza tiene un mal sistema de movilidad interno: tiene fuertes barreras arquitectónicas, escasez de aparcamientos...

Altza, tiene una escasa dotación de espacios libres de encuentro y juego.

Altza requiere que se desarrollen nuevos equipamientos y que se rehabiliten o amplíen algunos de los existentes.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Altza necesita un programa sostenido de rehabilitación del patrimonio edificado, tanto del patrimonio público como del privado, y dentro de este, y en particular, del patrimonio privado común. A este respecto cabe indicar

que las ayudas para rehabilitación a cargo del programa IZARTU finalizan en el 2005.

Altza necesita reubicar las industrias que conviven y se yuxtaponen a los edificios residenciales.

En una palabra, Altza necesita un Plan de Regeneración Integral. Un Plan que aborde desde una perspectiva global la problemática de Altza, que plantee un programa completo de actuaciones con sus correspondientes compromisos presupuestarios, que integre las actuaciones que supongan un potencial regenerador para el barrio como, por ejemplo, las de Lardialde, Auditz-Akular, Herrera o Jolastokieta, pero que vaya más allá de estas o de otras actuaciones puntuales.

Altza necesita una actuación del ayuntamiento sostenida en el tiempo y con recursos suficientes, de manera que ese barrio llegue a unos estándares de calidad similares a los que tienen otros barrios de la ciudad.

Por otra parte, un Plan de Regeneración de esta naturaleza debe ser elaborado por un equipo multidisciplinar con solvencia técnica, y la elaboración del mismo debe hacerse con la participación del vecindario a través de los mecanismos oportunos.




Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Sobre la base de estas consideraciones, el Grupo de concejales PNV propone la adopción del siguiente

ACUERDO:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia acuerda encomendar a la Junta de Gobierno la elaboración de un Plan Integral de Regeneración del barrio de Altza con el correspondiente plan de financiación plurianual, que aborde la problemática global de este barrio (accesibilidad, rehabilitación del patrimonio edificado, espacios públicos, equipamientos...) independientemente de las iniciativas urbanísticas en marcha en ese barrio y su entorno inmediato, y habilitando un proceso de participación de los vecinos de Altza.

En Donostia, 2 de marzo de 2005


Roman Sudupe Olaizola
Portavoz